

KRISTAU DEMOKRATEK ALDAKETA KULTURALA ESKATU BEHARKO LUKETE

Artikulu bat irakurri dut La Obra Máxima aldizkarian eta komentatzea interesantea iruditu zait. 2018ko apirilekoa da zenbia, eta elizaren magisterioaz la gestion economica artikulua dakar. Pasarte bat transkribatu egingo dut, honela dio aita santuaz diharduela:

“En un discurso al Congreso sobre una economía de comunión organizada por el Movimiento de los Focolares (04.02.17), subraya la importancia de la comunión: “Economía y comunión, dos palabras que la cultura actual tiene bien separadas y a menudo consideradas opuestas (...) Al introducir dentro de la economía el buen germen de la comunión, habéis iniciado un cambio profundo en el modo de ver y vivir la empresa. La empresa no solo puede no destruir la comunión entre las personas, sino que puede edificarla, puede promoverla, economía y comunión se hacen mas bellas cuando están una junto a la otra”.

Desde esta perspectiva el papa hace una serie de consideraciones sobre el dinero, las legítimas ganancias de la empresa, la distribución de la riqueza, la lucha contra la pobreza y la creación de un futuro, “que cambie las estructuras, de manera “ que el “no” a una economía que mata se convierta en un “sí” a una economía que hace vivir, porque comparte, incluye a los pobres, usa los beneficios para crear comunión”.

Hori da comentatu nahiko nukeena.

Ez dut erranen egiatik dihardudala, uste harroa litzateke, baizik eta teoria bat dudala horretaz guzti horretaz. Nik teoriak (kontenplazioak grezieraz) ditut eta holaxe presentatzen naiz.

Niretzat kultura orientala hiru fasetan sailka daiteke, orientala, klasicoa eta kapitalista. Beraz, kultura orientalean bertan bete-betean gaude. Eta kultura orientala da kulturetan gaiztoena, behar beharrezkoa ikusten dut nik kanbio kultural bat. Jesus ere bere paraboletan oso orientala ageri da, baina galdetzen diotenean zergatik, berak dio ezen bestela ez dutelako konprenitzen. Beraz, ez da zertan izan behar Jesusen mezua kultura orientala apuntatzeko. Harek unibertsaltasunetik berba egiten du, eta kultura oro hartzen du bere pentsamenduan. Haren errebelazioa kultura orientalean gertatu bada ere, kultura partikular batean beraz.

Eta, niretzat diot berriro, kultura orientalean antropologian estudiatzeko den joera ekonomiko birbanatzailea joera pilatzaille bihurtzen da. Zekenkeria nagusitzen da, diruzalekeriak hartzen du dena. Bekatu kapital bat ekonomiaren fenomeno nagusiari dagokiona. Eta aita santuak horretaz dihardu, birbanaketaz. Edo komunioaz, eliz kutsuko hitza erabiliz. Eta ni ez nago enpresen existentziaren kontra, diruzalekeriak mugitzen baditu badakigu nola gaur egungo gure kulturaren (orientala bete-betean) zer gertatzen den. Eta hor kokatzen dut nik kanbio kultural baten beharra, joera birbanatzailea ere ageri dadintzat.

Kristau demokraziak ere joera birbanatzailea azpimarratzen du. Eta badaude adibideak. Agian nabarmenena Bartzelonako parque Well delakoaren kasua izango da. Nire arreba bat ego-na da bertan eta dirudienez Gaudi arkitekto katolikoak diseinatu zuen, etxeak eta eliza bat, ederrenetakoak, beharginentzat eginak. Hor adibide bat, segitzen ez dena gaur egun, jakina den moduan. Eta nik ez dut problemarik gaur egungo

kristau demokratei proposatzeko eurak ere egon daitezela halako kanbio kultural baten alde. Ez da derrigorrezkoa sozialismo marxistak ikusten duen enpresen nazionalizatzea, baizik eta inportanteena da joera birbanatzailea ageri dadin nabarmen. Arrisku handiak baititu diruzalekeriak nagusitzean gaur egun.

Nik aldizkari honetan sozialismo kristauaren alde egin dut sarritan, oso politizatuak gaudelako izango da baina politikak herri honetan batu banatu eta denetik egiten du. Baina artikuluhonetan bai sozialismo kristaua eta baita kristau demokrazia ere bateratu egiten dira, eta nik lasaitua hartzen dut.

Roman Garmendia